

Armada Federalak berriro egin dio eraso Dubrovnik hiriarri

Herenegun behin-betiko suten sinatu zuten bertoko agintariek militarrekin

Gutxienez lagun bat hil zen eta beste zazpi zauritu Armada Federalak Dubrovnik hiri kroaziarrari eginiko erasoetan. 23 eguneko borrokarik izan ez den 'Ertaroko Ragusa-n' Jugoslaviako Armada Federalak orain arteko bonbardaketarik gogorrena egin duela adierazi zuen atzo Kroazia Irratiak. Kroaziako beste hiri batzuetan ere borrokak izan ziren herenegun gauerdian hasi ziren enfrontamenduetan.

ZAGREB

Dubrovnik Irratiaren arabera, dominikanoen monastegi bateko sabaia serioski kaltetu dute atzoko bonbardaketek, eliza ortodoxo serbiar bat ere bai, zaharren egoitz bat eta Erdi Aroko harresien barneko beste eraikuntza batzuk ere bai. Hiri guztian zehar ke beltz handia altxatzen zen atzo.

Herenegun agintari militar serbiarrek eta Dubrovnikoko agintariek eginiko negoziaketan, joan den azaroaren 13an ezarri zen behin-behineko sutenaren betirako ezartzeko akordioa iritsi ziren, baina akordioa sinatu eta ordu batzuetara hautsi zuten akordioa militar jugoslaviarrek.

Osijek hirian ere, Eslavonia eskualde kroaziarrako hiriburuan, enfrontamenduek segitzen dute, eta herenegun 14 lagunek galdu zuten bizia eta beste 70 zauritu ziren. Bertoko alkateak, Zlatko Kramaric-ek atzo gezurtatu zituen Eslavoniako buruzagi serbiarrek esandakoak. Hauek ziotenez, Osijeko alkatea prest zegoen hiriaren errendizioa eskain-



Azaroaren 20an bezala, kea zerion atzo Dubrovnik.


tzeko Armada Federalari. Bernard Cushner-ek, Arazo Humanitarioetako ministro frantziarrak atzo adierazi zuen «onartezina dela gutxiengoak babestea gizakien biziekien akabatuz». Cushner Osijeken zegoen atzo bertoko egoeraz informatzeko. Eslavoniako hiriburuan 160.000 lagun bizi dira eta horietatik % 20 serbiarrek dira, Armada Federalak eta gerrilari serbiarrek «agintari kroaziarrak faxistengandik babesten dituztenak».

Osijek eta Dubrovnik ez ezik, Sisak, Gospić, Zadar, eta Ston eskualde inguruan ere enfrontamenduak izan ziren, eta Sisaken, Aire Armada Federalak bertoko industri gune nagusia bonbardatu zuen.

Holokaustoa

Datu ofizialek 10.000 hildakoez hitzegiten badute ere Kroaziarekiko Elkartasun Komiteak bikoiztu egin du kopuru hori. Atzo bertan eman zituen ezagutzera erakunde horrek Vienan. Komite horren arabera 20.000tik gora dira hildakoak eta horietako gehienak zibilak dira. Armada serbiarrek «helburu zibilak ditu bere plangintza militarretan eta horien aurka egiten du tiro» adierazi zuten Komite horretako ordezkariak Austriako hiriburuan.

Kroaziako lurraldearen % 60 gerraren ondorioak ari da jasaten eta 10.000 kroaziarrak inguru Serbiara eraman dituzte behartuta. Errefuxiatuen kopuru ofiziala 550.000koa da, Komiteko iturrien arabera, Kroaziako industriaren % 60 birrindu du serbiarren esku dagoen Armada Federalak. Errefuxiatuei dagokienez, Kroaziarekiko Elkartasun Komiteko ordezkariak iturri ofizialek baino informazio gehiago eta zehatzagoa ematen dute. Horien kontuen arabera, milioi erditik gora ihes egin du bere etxetik, Kroaziako biztanlearen % 11,5, hain zuzen. Errefuxiatuetako 400.000 inguru kroaziarrak dira. 350.000 inguru lagunak, gehienak haurrak, hoteletan eta eraikuntza publikoetan aurkitu dute babesa beren etxeak birrindurik geratu ondoren.



Muammar Gadafi.

EEBBen ustez Gadafik denbora galdu nahi du bi libiarrak atxilotuta

WASHINGTON

Libiako agintariek ustez Pan Am konpainiako hegazkina lehertarazi zuten bi libiarrak «denbora nahita galtzeko» atxilotu dituztela azaldu du Estatu Batuetako Gobernuak. Margaret Tutwiler EEBBetako Estatu Departamentuko bozeramaleak esan zuenez, bi funtzionari libiarrak Libiako epaitegi batean epaitzea «erokeria» da. Libiako Gobernuak bi funtzionarien atxilotetaren berri eman zuenean, bertako legeek estradizioa debekatu egiten dutela eta bertan epaituko dituztela esan zuten.

Washingtonen bi funtzionarien estradizioa lortzeko ez du erabat baztertu Libiari eraso militarra egiteko posibilitatea. Muammar Gadafi lehendakari libiarrak, bere aldetik, «IRA eta beste askapenerako mugimendu nazionalekin» zituen harremanak hautsi dituela adierazi zuen 'Al Ahram' egunkari egiptoarrear. Estatu Batuek 1986. urtean Libiako hiriburua bonbardatu zuteneko atentatuen arduraduna Gadafi zela esanez. Pan Am konpainiako hegazkina 1988. urtean Eskozian lehertu zuenean lehen susmoak Libiara zuzendu zituzten Estatu Batua eta Erresuma Batuko informazio zerbitzuek.

Errusia, Bielorrusia eta Ukrainiako lehendakariak gaur bilduko dira

MOSKU

Boris Ieltsin, Stanislav Xuxkevitch eta Leonid Kravtxuk, Errusia, Bielorrusia eta Ukrainiako lehendakariak gaur bilduko dira hiru errepublikek aurrerantzean izango dituzten harreman ekonomikoak eta politikoak eztabaidatzeko. Dena den, hiru lehendakarien artean ezadostasun ugari dago eta zaila izango da akordioak lortzea.

Ieltsinek hiru errepubliken artean ardatz eslaviarra osatu nahi du, SESBeko gainontzeko errepublikak alde batera utziz. Errusiako lehendakariak, ordea, garai bateko zentralismoa berpiztu nahi du eta Mosku ardatzaren buru izatea proposatu du. Bielorrusiako agintariek prest dauen Errusiarekin harremanak sendotzeko.

✓ Minskeko gailurrean hiru lehendakariak errepubliken arteko etorkizuneko harremanen oinarriak finkatuko dituzte, baina dituzten desadostasunak hain dira handiak ezen akordioak gabe amai bait daiteke.

Ukrainiak, berri, ez du Moskuren kontrolpean jarraitu nahi eta harremanak izatekotan errepublika guztiak berdina izan behar dutela uste du. Izan ere, Kravtxuk-ek garbi utzi du bere errepublikak aldebiko akordioak baino ez dituela sinatuko, beste estatu subirano guztiak egiten duten moduan.

Italiako Gobernuak, bestalde, Ukrainiaren independentzia onartuko duela azaldu zuen Gianni De Michelis Atzerri ministro italiarrak. Michelisek adierazi zuenez, Soviet

Batasuna ez da existitzen. Era berean Atzerri ministroaren ustez, Europak agintari ukrainiarrekin gutxiengo eskubideak, mugetaz eta arma atomikoen kontrol neurrietaz hitzegin behar du.

Karabaj Garaian, Azerbaidjanen barruan dagoen armeniarrez betetako eskualde autonomoan independentzia erreferenduma abenduaren 10ean egitea erabaki du bertako Gobernuak. Armeniar eta azerien artean gerra zibila dago gaur egun eskualde horren kontrola lortzeko.



Ivan Dratsek, Rukh mugimendu nazionalistako buruzagia.